

ttüpi-ttapa

1994.eko maiatzak 19 • 134. zenbakia

Erreportaia

**Alkate eta zinegotzien
soldatak**

**AZKENEKO
BEHI-PAREAK**



E Z K A L O

JOSE ANTONIO ELIZONDO Jauna • API 129

INFORMAZIOA: 45 15 18 Tfnoan. • DONEZTEBE

Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero



VINIES

Hecho aranean, Iruñetik 89 kilometrotara. 900 m² orubea duen gaztelua salgai.

6.000.000 pzt. negoziagarriak

SESMA

Etxea salgai.

5.000.000 pta.

MONTEAGUDO

Etxea salgai. Tuteratik 6 km-tara. 120 m² 4.000.000 pta.



DONEZTEBE

Pisuak eta apartamentuak 8.500.000 ptatik aitzinera.



NARBARTE

80 m²ko pisua salgai. Sukalde ekipatua, sala tximinia-kin, 3 logela eta bainugela. Bajera eta trasteroa. 700 m²ko baratzea. 12.000.000 pta.



DONEZTEBE

Industria eta komertzio gunea Aparanen.

- Pabeloi industrial eta komertzialak, erakusketetarako, almagazak, bulegoak, etabar...
- 150m² bakoitzeko.
- Zuk behar dituzun zerbitzu guztiak.
- Aparkalekua

ZURE KOMERTZIO EDO ENPRESARAKO TOKIRIK EGOKIENEAN

DONEZTEBE

- Komertziorako bajera Rosa Seminario karrikan, Torroba etxearen parean. Prezio negoziagarria.
- Komertziorako bajera Amezitia karrikan. Prezio arras interesgarria.
- Pisua alokatzeko Zaldia argazki dendaren gainean. Moleztatua eta kalefakzioarekin. 37.000 pta.

ELIZONDO

Udarako baserria alokatzen dut.

LEITZA

Bi borda salgai.

ARANO

Baserria bordarekin salgai.

GOIZUETA

Borda salgai.



ZUBIETA

Bi solairuko borda salgai. 50 m² solairu bakoitzean. Errepidetik hurbil.

Prezioa negoziagarria.

LESAKA

- 270 m² industria pabiloi alokatu edo saltzeko daude.
- 'Lenon' ostatua salgai.

BERA

Moldatu beharreko pisua salgai, bi familiendako etxean. Ganbara eta bi kotxerendako garagearekin. 5.800.000 pta.

SUNBILLA

- 700 m² edifikagarri den lur eremua salgai. Prezio negoziagarria.
- Bi etxebizitzako etxean 100 m²ko pisua salgai. Sukalde ekipatua, 4 logela, 2 bainugela, egongela tximiniarekin, kalefakzioa. 50 m²ko ganbara, 17 m²ko garajea eta 40 m²ko bajera. 12.300.000.

AZPILKUETA

Borda eta 8.000 m²ko lur eremua salgai.

DATUAK.....

❖ Bertizko Partzuergoaren babesean sortutako Komertzianteen Elkartearen lehendakaria da Blanka, Mugairiko Oskorri liburudendakoa.

❖ Baztan, Malerreka eta Bortzirietako berrogeitasei komertzio inguru daude asoziatuak.

❖ Klase guzietako dendak daude elkartean, baina Blankak dioenez harategi gutti sartu dira momentuz.

❖ Zona horretako herri guzietara zabaldu nahi duten arren, momentuz Baztan eta Doneztebeko dendak bildu zaizkie gehien bat.

TESTUA
AITOR AROZENA
ARGAZKIA
JOXEMANUEL IRIGOIEN

Blanka BERTIZ:

«Komertzioek bakarka baino indar gehiago egin dezakegu elkartuta»

INGURUKO KOMERTZIO BATENTZAT ZEIN ABANTAILA ESKEINTZEN DITU ELKARTEKO PARTAIDE IZATEAK?

Problema gainean dugula ikusten dugu. Hortaz, denak elkartuta idea gehiago edo indarra gehiago egiten ahal dugu zerbait eskatu behar izanez gero. Bat banaka joanez ez ditugu gauzak hain aisa lortuko. Gainera, eskualde honetan arras sakabanatuak gaude eta asoziazioak herri guztiak elkartzen dituen, hori probexu beharra dago. Gehiegi ez gaitzatelaz zanutu behinpin.

NOLA IKUSTEN DUZU GAUR EGUN INGURUKO KOMERTZIOEN EGOERA?

Nere ustez ongi dago, nahiz eta azken aldian gelditu xamar egon. Zerbait egin behar da salerosketak mugiarazteko.

ZER GISAKO DENDAK ETA NONGOAK DITUZUE ELKARTEAN?

Gehien bat Baztan eta Doneztebeko komertzioak daude elkartuak. Malerreka gainerako herrietatik eta Sunbillaatik behiti nahiko gutti. Beharba-



da geografikoki Bertizetik urruti daudelako edo... Edozein moduz guk guztiekin funtzionatu nahi dugu eta Bera eta Lesaka aldean bilera deitu beharko dira seguraski, ikusi beharko da. Denda klaseak berriz, denetik ditugu: Ileapaindegia, janari dendak, okindegiak,

argazki dendak, arropa dendak, liburu dendak... Artisauak ere baditugu elkartean, laister beraientzako elkartea egingen bada ere.

DAGOENOKOZ BADUZUE ZERBAIT ELKARREREKIN EGINA?

Egina oraindik ez dago deus, orain arte asoziatu gutti baikin. Mugimendua orain hasi da.

BERAZ, HEMENDIK AITZINERA ZERBAIT PRESTATUKO DUZUE?

Zenbait ikastaro egiteko asmoa dugu:

marketing-a, eskapara-teak moldatzekoa, saltzen ikastekoa (bezeroari atentzioa). Horretaz gain gida bat argitaratzeko asmoa dugu eta azkenik, irail aldera bezeroen artean bidaiak zozketatuko ditugu.

ELKARTEARI BURUZ INFORMAZIO GEHIAGO NAHI DUE-NAK ZER EGIN BEHAR DU?


Bertizko zentroan pertsona bat dago goiz eta arratsalde, behar diren azalpen guztiak emateko. Bertako telefonoa 592323a da.

» «Hemendik aitzinera, ikastaro berexiak eta komertzio gida egin nahi ditugu eta irailan bidaiak zozketatuko ditugu bezeroen artean»

Zenbat kobratzen dute gure herrietako alkate eta zinegotziek? Jakin mina sortzen duen gaia izateaz gain, irristakor eta minberagarria ere izaten ahal dena da eta behin baino gehiagotan hala gertatua.

Denbora berean, ordea, gaiak baditu herritarrentzako interesgarriak diren alderdiak, eta beraiei buruzko azterketa ongarria ere bihur daiteke. Uste horretan ekin diogu.

TESTUA
PELLO APEZETXEA
ARGAZKIAK
ARTXIBOA



ALKATE ETA ZINEGOTZIEN SOLDATAK

NOLABAITEKO SOLDATA ESKURATZEA BIDEZKOA IDURI DU. HERRIARI GASTUA HAUNDITZEA ONGI DAGO, SARRERAK ERE HORRELA HAUNDITZEN AHAL BAITZAIZKIO. BANAZ-BERTZE, HAGITZ GUTI KOBRTZEN DUTE.

«Asignazioak ezartzerakoan dagoen kriterioa berraztertu nahian gabiltza»

Asignazioak ezartzerakoan Baztango Udalean darabilten erizpide edo kriterioa zein den galdetu diogunean, gaiak kezka sortua diela adierazi digu Patxi Oiartzabalak. Zentzu horretan, «bertze udalek nola fun-

tzionatzen duten ikusteko asmoa» dute, azken finean, «dedikazio gehiago ematen duenari sari gehiago emateko». Izan ere, orain arte ez da holakorik gertatzen, «lana batzuk egiten dute eta gero, denak berdin kobratu».



Patxi OIARTZABAL
Baztango Alkatea

herri-gizonak deitutakoak, herrikoetxean biltzen den gizon-emakumeak, alegia, herriaren bizkar aberasten direlako erranak ez dira oraingoak.

Batez ere, alkateari dagokionez. Alkatea denez, normalean, herrian gehiago egin eta herriko gauzez gehiago jabetzen dena, bera jotzen dute gehien erranek eta marmariak ere. Egia? Gezurra? Denetatik izaten ahal da, behar bada. Dena den, hiri nagusietakoa alde batera utziz, gure herrietan erabiltzen den sos kopuruak ez du aberasteko aukera haundiegirik eskeiniko, seguru aski. Dena den, jendearen zer erranak badu batzuetan zerikusia ze nolako soldata jarri behar denean, hau da, herritarrek karguaz baliatzen direla aurpegiaratu ote dioten beldurra.

DESBERDIN KOBRTU

Estatu espainiarrean orain dela hamabost urtez geroztik, Francoren ondotik, herriak Aiumenturako zuzenean hautatzen dituzenez geroztik, kargu horietan daudenean nolabaiteko soldata kobratzea legezko gauza da. Aurreko urteetan ez bezala. Estatu frantziarrean ere badago udal asignaziorik. Antzinagotik ere, ordea, udaleko gizonak kobratzen zuten, duela 200 eta 300 urte herriko kontuetan ageri da alkate eta kontzejalen urteko soldata. Zera erran nahi du horrek, ez dela burugabea, bidezkoa baizik. Legezkoa izanagatik, ordea, ez da herri guzietan kobratzen. Eta egiten denetan, ez dute neurri eta erizpide berdinek agintzen. Zergatik ezberdintasun hori? Iduri duenez, herrietan alkate edo zinegotzi izateak herriari denbora eta dirua ematea erran nahi du, gehienetan. Egokia da hori?

Herriarrentzat egiten den lana eta sartzen diren orduak ere

ez dira berdinak izaten herri guzietan, ezta herri bereko alkate eta zinegotzi guzien aldetik ere. Hori dugu soldata xehetzeko beste arrazoiak, soldatak ezberdintzea agintzen duena.

KASO BEREZIAK

Ondoko koadroan ikusten ahal da herri bakoitzean da-goena. Xehetasun ugari eman dizkigute, eta leku arazoengatik ezin guziak hemen agertu. Arantzan adibidez, bileretara agertzen ez diren kontzejalek asignazioa kobratu nahi izatea «*kekagarrizat*» jotzen zuten. Leitzan, bestalde, «*Mendietako Batzordekoa den Gerardo Caballero zinegotziari 600 Pta.*» ordaintzen omen zaio orduko eta «*Jose txo Zabaletari bileretara etortzeagatik 'Sarrion' soldatatik deskontatzen ziotena, orduko 1.206 Pta.*».

GEHIAGO KOBRATU ETA LAN GEHIAGO EGIN

Bada gai honen inguruan sortzen den galdera. Herriarentzat ordu gehiago sartzea mesedegarri izanagatik, Udalbaskideek ezina sumatzen dute, beren beste eginbeharrak direla eta. Eguneroko soldata etxeratu beharrak eta familiak eskatzen dien ardurak herriari dedikatu diezaioketen denbora aunitz murrizten baitie. Ez litzateke gomeni gehiago kobratzea, horrela herriarentzako ordu gehiago sartu ahal dezaten? ordu gehiago sartzeak herriko gastuak haundituko lituzke, noski, baina herriko diru sarrerak hobetu ere egiten ahal ditu. ■

KORPORAZIOKIDEEN URTEKO ASIGNAZIOAK

BAZTANALDEA

	GUZTIRA	ALKATEAK	KONTZEJALEK	AZALPENAK
Baztan (13)	3.400.000 Pta.			Gobernu Batzordekoek (5), alkatea barne 272.000 Pta. Gainerakoek (8) 255.000 Pta.
Urdazubi (7)	341.441 Pta.	85.360 Pta.	42.680 Pta.	
Zugarramurdi (7)	208.789 Pta.	52.197 Pta.	26.098 Pta.	

BORTZIRIAK

	GUZTIRA	ALKATEAK	KONTZEJALEK	AZALPENAK
Arantza (7)	643.765 Pta.	91.966 Pta.	91.966 Pta.	Asignazioa herriarentzat utzi ohi da.
Bera (11)	1.643.188 Pta.	273.865 Pta.	133.932 Pta.	
Etxalar (7)	657.000 Pta.	165.000 Pta.	82.000 Pta.	
Igantzi (7)	405.814 Pta.	-	67.636 Pta.	Alkateak aparteko asignazioa du.
Lesaka (11)	1.384.306 Pta.	230.718 Pta.	115.359 Pta.	

LEITZALDEA

	GUZTIRA	ALKATEAK	KONTZEJALEK	AZALPENAK
Areso (7)				
Goizueta (9)	-	-	-	Ez dago asignaziorik.
Leitza (11)	2.076.600 Pta.	965.640 Pta.	111.096 Pta.	


MALERREKA

	GUZTIRA	ALKATEAK	KONTZEJALEK	AZALPENAK
Beintza-Labaien (7)	400.000 Pta.	100.000 Pta.	50.000 Pta.	
Bertizarana (7)	-	-	-	Ez dago asignaziorik.
Donamaria (7)	450.000 Pta.	150.000 Pta.	50.000 Pta.	
Doneztebe (9)	850.000 Pta.	324.062 Pta.	58.437 Pta.	Alkate-ordeak 116.879 Pta.
Elgorriaga (5)	-	-	-	Ez dago asignaziorik.
Erasun (5)	-	-	-	
Ezkurra (7)	-	-	-	
Ituren (7)	120.000 Pta.	120.000 Pta.	-	
Oitz (5)	-	-	-	Ez dago asignaziorik.
Saldias (5)	-	-	-	
Sunbilla (7)	700.000 Pta.	175.000 Pta.	87.500 Pta.	
Urrotz (5)	240.000 Pta.	80.000 Pta.	40.000 Pta.	
Zubieta (7)	-	-	-	Ez dago asignaziorik.

SARA

	GUZTIRA	AUZAPEZAK	'Adjoint'ak (6)	AZALPENAK
Sara (19)	204.000 Lib.	60.000 Lib.	24.000 Lib.	Gainerakoek ez dute asignaziorik.

Datu iturria: Udalak



EEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.700 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-
ien. **Publizitatea:** Miren Kar-
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-
rozena, Joxemanuel Iri-
ien. **Erredakzio taldea:** Pe-
Apezetxea, Juainas Paul,
istina Boan, Bittori Telletxea.
erriemaileak: Joseba Azpi-
z, Esteban Arozena, Juana
ari Saizar, Ainhoa Mutuberria,
an Isasi, Txema Aldabe, Pello
xegia, Txema Urroz, Patxi
xandorena, Daniel Martirena,
abel Maia, Josune Etxebeste,
ablo Mendiburu, Joseba Iga-
pide, Alizia Olaizola, Margari
xenike, Koro Irazoki, Mixel
erendiain, Jacqueline, Marta
rria, Oskar Txoperena, Al-
orto Sansiñena, Pello Apeze-
ea, Aitor Arozena, Kristina
an. **Kolaboratzaileak:** EHNE
afarroa, Patxi Lasa, Josetxo
sperregi.

primategia: Gertu (Oñati).
pi-ttapak ez du bere gain
rtzen derrigorrez, aldizkarian
ierazitako erranen eta eritzien
antzukizunik

akunde Laguntzaileak:
era, Leitza, Goizueta, Areso,
ztan, Urdazubi, Zugarramur-
eta Sarako udalak, Bor-
rietako Euskara Mankomuni-
tea, Malerrekako Zerbitzu
ankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzaren
ultura Saileko laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Komunioak eta kontsumismoa

Lehen jaunartzeak: kontraesan kezkarria!



Juan Bautista IRAZOKI
Leitzako Apeza

Alde batetik katekistek du-
ten lanik poz-
garrieneraiko bat da. Adin
horretan maliziarik eta ino-
lako trabarik gabe, Jesusen
berria onartzen baitute inter-
esen haundiz. Ume askoren-
tzako beren bizian ahaztuko
ez duten esperientzia.

Bainan beste aldetik, hor
bertan sortu zaigu, etsai a-
tzapra-luzedun 'kontsumis-
mokeria'. Ez naiz sartuko
zehaztasunetan, denen be-
gien bistan baitago. Eta, a zer
kontraesana!

Lehen kristauek zituzten
interesak elkarbanatzen zi-
tuzten, beraien artean zeuden
behartsuen artean. Horretara
biltzen ziren. Hori zen haien
Eukaristia edo Meza ospa-
tzea. Horrekin loturik zegoen
Jesusen oroigarri bizia. Eta
gure umetxoei zer erakusten
diegu? Zerekin lotuta gera-
tzen zaie lehen aldiz Eukaris-
ti horretan parte hartzea?
Kontsumismo egoista bate-
kin!

Nik egin nuenian ez nintzen ohartzek nolako montajea zen



Belen GERRA
Berako Gurasoa

Nire haurrak
maiatz honetan
egin behar du
komunioa Beran, eta komu-
nioa berak nahi duelako
egiten du. Ospakizuna nere
amaren etxean ospatuko
dugu, izan ere pisu batean
egitea ezinezkoa baita. Gai-
nera nere amari ilusio haun-
dia egiten dio guzi horrek.

Dena dela nik ez diot
haurrari arropa berezirik erosi
behar. Gaur egun komunio-
en kontua izugarritzko mon-
tajea bihurtua da eta hori ez
zait batere gustatzen. Hortaz,
guk behinpin modu sentzi-
lloan egingen dugu.

Gogoan dut komunioa
egin nuen eguna. Hagitz
gustora pasatu nuen. Orduan
ez nintzen ohartzek nolako
montajea zen bainan orain
bai, orain ikusten dut nolako
montajea den.

Gehiengo batek 5.000 pezetako menua aukeratzen du



Maritxu PORTU
Mugaire Jaletxekoa

Maiatz komu-
nio hilabetea da
eta igandero
izaten dugu bakarren bat.
Aurten adibidez, maiatzaren
9an hasi eta ekainaren 6a bi-
tarte izanen ditugu.

Gure etxera inguru hone-
tako herri diferentetarik etor-
tzen dira eta honela herri
batean baino gehiago koin-
tziditzen duenean betetzen
dugu komedorea.

Horrelakoetan, jendeak
egun ederra pasatu nahi iza-
ten du familiarekin batera,
eta komunioa egiten duena-
rentzat ahaztu ezina egiten
zaio egun hau.

Banaketetan normalean 25-
50 lagun biltzen dira eta me-
nuari dagokionez, gehiengo
batek egun horretarako 5.000
pezetakoa aukeratzen du eta
haurrentzat, menu berezia
prestatzen dugu, 2.000 pezeta
ingurukoa.



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia


121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO


**Kontsumismoa
Komunioetan**
Biotz UNANUA

Baztango Bertso Eskolokoa
Neurria: Zortziko haundia

*Dagoeneko haurtxo guztiak
Erabat urduri daude
opari asko espero dute
zenbat ta gebiago hobe
jaunartzea zer izanen zen
jantzi berezirik gabe
nabi gabe baina kontsumismoan
guztiz murgildurik gaude.*

*Ta gutxiegi izanen balitz
gauza hauek ordaintzea
oraindi ere ez al da falta
bazkaria aipatzea
baina balere zaila da baurra
honekin konformatzea
garaia da ta komeni zaigu
jarrera hau aldatzea.*

**Baztanesako
txoferraren alde**

Honen bidez nire lagun baten agertu nahi nuke, aldizkari honetan bere kasua nahasi bait zuten.

Hasteko azaldu beharra dago, agertzen diren hiru esaldi horiek erran zirela baina inolaz ere harrokeriaz, txoferraren harrokeria salatariaren irudimenean bakarrik sortu zelarik. Era beran erran behar da txoferrak ez duela ulertzen kasuari eman zaion fokatze politikoa.

Txofer honek urte aunitz eman ditu lanbide honetan, begikoa eta atsegina izateagatik nabarmentzen delarik.

Uste dut, oraindik "errote-tan" Euskal Herriaren etsaia ikusten dituzten "Quijoteak" badirela.

Vicente, okertu egin zara eta bakarrik nahi nuke zure onerako, zure lanbidean txofer hau bezain konpetentea izatea.

Esker mile gainetik kezka hau kentzen uzteagatik.

BAZTANESAKO MIGUEL
ENA- 72.663.694

Belatetik sortua

Eta Belatetik sortzen diren lanbroek anaitasun berdez hoztuko dute lurra Txokotoko erreginak, zubitik, hautsi du finean Elizondoko ur koloretsuen ispilu itzela; eta euri goiztiarrak pintzelarena eginen du, ibai-margoan herria bertan lokaturik. Haranburua, harana lotan balitz ederra, aldiz, hamaika latsen iratzar.

Antza, ariztegi, pagadi eta gaztaindegi gose dagoen Haran malenkoniatsu.

Egun, ordea, artalde ziprintindua, milaka harrizko borden oinarri, azienda eta abere bordak mugan.

Naturarekin bat egin eta sortu izanaren historia nafar euskaldun etxea.

Historia, historia, xake-ekutu baztandarra.

Memoriaran harizko euria, margoen iturria.

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek
tokia izan deza-
ten, ez da komeni
makina idatzi-
tako 25 lerro
baino luzeago
idaztea gutun
hauetan. Idatzi
duenaren izen-
deiturak, telefo-
noa, helbidea eta
ENAaren zenba-
kia agertu
beharko dira.
Laburtu beharra
izanez gero, ttipi-
ttapak bere esku
izanen du horre-
tarako eskubidea.*

**MAGNETISTA - NATUROPATA
ZURE BEGIAK ZAINTZEN DITU**
☸ BISTAREN ERREKUPERAZIOA


- Begi alferak, estrabismoa, kataratak, retinosia, begietako neuritisa, begietako infekzioak, konjuntibitisa, miopia, hipermetropia.

☸ REHABILITAZIOA

- Artrosia, Artritis erreumatoidea, bihurdurak, lunbalgiak, zerbikalgiak, psoriasia, diabetesa, azaleko alergia, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara (Ordua eskatu)


San Marcial 7 - 4. - IRUN ☎ (943) 62 30 55



LESACA

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Belateko tunelaren obrak
Diario de Navarra 94-IV-21

«Jakin badakigu karrikan entzuten duguna eta inkestak ematen dizkigun zenbakiak urrutitik ere ez datozela bat. Euskararen erabilera arrunt kaxkarra da eta erran genezake hori dela inguru honek duen arazorik larriena».

Malerrekako Langarra
Euskara Taldea
Nafarkaria
(Egunkaria) 94-V-13

«Arretxe ikusten dut faborito bezala, azken bizpahiru urteotan garantia bat baita... Manomanista bikaina da eta ederki moldatzen da espezialitate honetan. Postura guzietan ongi dominatzen du eta nere faboritoa da».

Inaxio ERRANDONEA
Berako pilotaria
Egin 94-V-8

◆ Zein kurtsoan joaki zara?

❖ Zortzigarren mailan.

◆ Zein duzu ikasgairik gustokoena?

❖ Natur zientziak.

◆ Eta hain gustoko ez duzuna?

❖ Matematika.

◆ Eskola oporretatik zein dituzu nahiago?

❖ Udakoak.

◆ Zein kirol duzu gustokoen?

❖ Futbitoa.

◆ Zer da Urdazubitik gehien gustatzen zaizuna?

❖ Herriko bestak.

◆ Zer lanbide nahi duzu haunditzean?

❖ Goxogilea izan nahi nuke.

◆ Munduko zein toki nahi duzu ezagutu?

❖ Txina.

◆ Alderdi hontako herririk gogokoena zurea kontatu gabe?

❖ Elizondo.

◆ Gustoko janari bat?

❖ Ganbak.

◆ Denbora librean zer egiten duzu?

❖ Nere laguna Ainhoarekin pasaietan ibili.



Silvia OLAIZOLA

13 urte. Urdazubikoa.

SAROBEn okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIAK

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta BIDAIA ALTERNATIBOAK

BIDAIA
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADUANAKALERA, 5
943 - 615177
943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRULIN



Errefreskoak, Ura, Ardoak, Likorrak, Txanpaina
Tfnoa: 63 10 27 • BERA




Emakumeek elkartea osatuko dute

Bertze elkarteen gisara, euren kezkak eta prolemak lantzea izanen dute helburu

KRISTINA BOAN

Joan den udazkenaz geroztik, emakumeen arteko bilera batzuk antolatu izan dira. Biler horien fruitu izan zen martxoan, Emakumearen Eguna zela eta prestatu zirenekintzak. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak bultzaturik eta Udalak emandako lokalari esker, hama-bortzero biltzen dira euren kezkak eta solasgaiak agertzeko. Deialdi zabal bat egin zuten Berako etxe gunitara, biler horietan parte hartzeko gonbitea eginez. Erantzuna hagitx zabala izan ez bada ere, aitzinera segitzen dute Emakumearen Elkartea sortzea euren helburu garrantzitsuen delarik. Biltzen diren emakumeak oraingoz, etxetik kanpolana egiteaz gain, etxekoandre direnak dira, baina taldea guzietan idekia dago. Badirudi andreen artean desconfiantza da-



Alfonso Garziandia da Berako apez berria. 28 urte ditu eta berez Etxarrikoa da. Bere lehenbiziko meza martxoan 17an eman zuen. Berako Elizak duela hamar urte ez zuela horrelako bestarik ospatzen.

goela eta taldearen lehen urratsak zein diren esperoan daudela. Momentuz, proposatu dituzten menopausiaren inguruko jardunaldiek harrera ona izan dute eta akaso andre gehiago animatuko da.

Astelehen honetan Emakume Elkartea legalizatzeko batzarran bildu ziren, eta estatutuak onartu zituzten.

Juan Karlos Garro, profesional mailan

'Euskadiko Open' a korritzen ari da, joan den urtean bezain ongi. Azkeneko proba maiatzaren 29an izanen da Ultzaman eta bertan ongi aritzen baldin bada, Mujika eta Estebanen ondotik sailkatuko da. 'Rally

Nacional' ean ere parte hartzen du, eta bertan laugarren postuan joaki da.

Garro beratar gaztea bizikleta munduan buru-belarri sartua da. Aurten bizikletara dedikatzen da profesional mailan.



ttipi-flash

'Lainope' ren deialdia

Maiatzaren 25ean, arratsaldeko 8etan Iamotenean.

Istripu larria

Maiatzaren 6an, Juan Martin Altzuguerek istripu gaitza izan zuen motoarekin Ibardinetik heldu zenean. Golperik haundiena buruan hartu zuen.

J. Mari Irazoki

Joan den maiatzaren 7an, Anoetan, Valencia, Salamanca eta Real Sociedad taldeen artean lasterketa izan zen eta beratar honek garai-pena lortu zuen.

J. Mari Gainza

Beratarrik zaharrena maiatzaren 12an hil zen 99 urterekin.

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA



© 631076 • BERA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

Bixente TABERNA argazkilaria

Ezkontza, bataio eta komunio
ERREPORTAIK

Tfnoa: 630597 • BERA





Andoni Sarasola intsumisoa astelehenean epaituko dute

Elkartasuna adierazteko 'Aste bukaera intsumisoa' antolatu da Arranon

AITOR AROZENA

Maiatzaren 23an epaituko dute Iruñean Andoni Sarasola, 21 urteko intsumiso lesakarra. Elkartasuna adieraziz zenbait ekitaldi izanen dira Arranon asteburu honetan, 'Aste bukaera intsumisoa' izenburupean. Ortziralean, gaueko 9,30etan bideo emanaldia. Larunbatean, arratsaldeko 7,30etan eztabaida Moc, Kaktizat eta Jarrai erakundeen artean. Ondotik afaria izanen da. Izena ortzirala baino lehen eman behar da. Igandean azkenik, arratsaldeko 8etan manifestazioa burutuko da.



Andoni Sarasola



Ekhine Etxepeteleku eta Alaitz Rekondo, Nafarroako Eskolarteko bertso paper lehiaketako txapeldunak, 7. eta 8. mailatan Argazkia: Aitor

Herriko bertsolari gaztetxoak bikain ari dira Nafarroako Eskolarteko txapelketan

Herriko bertsolari gaztetxoak ederki ari dira aurtengo Nafarroako eskolarteko bertsolari txapelketan.

Bertso paper lehiaketan, Nafarroako txapeldun suertatu dira Irain eskolako Ekhine Etxepeteleku eta Tantarumairu ikastolako

Alaitz Rekondo, zazpigarren eta zortzigarren mailatan.

Bertzalde, aurre lehen aldiz burutu den bapateko bertso txapelketaren finalean lau lesakar izanen dira ortziral honetan, maiatzak 20, Iruñean: Erika Lagoma eta Xabier

Terreros arituko dira bertso kantari, arestian aipatutako bi neskekin batera. Finalerako txartela Lesakako frontoian burututako kanporaketa proban eskuratu zuten. Bertso ederrak aditu ziren, gehienek 14 urteak bete gabe izanik ere.

IV. mendi bizikleta ibilaldia igandean

Igande honetan, maiatzak 22, burutuko da Beti Gaztek, Herriko Etxearen laguntzaz, laugarren urtez antolatutako mendi bizikleta ibilaldia.

Txirrindulariak goizeko 10etan ateriko dira Plaza Zaharretik eta 25 kilometroko honako ibilbide hau egin beharko dute: Lesaka - Bereau - Otsango - Nabazgain - Laminaciones - Ipar Hai - Zelaikoborda - Sastringo pista - Zandubionborda - Piedadeko gaina - Ziobi - Lesaka (Plaza).

Izen ematea, egun berean egin behar da 9etatik 10etara Ekaitza kafetegian, 700 pezeta utziz. Antolatzailerak erran dutenez, sariak zozketatuko dira partehartzaileen artean.

Bortzirietako DYAK

bere hamargarren urteurrena ospatzeko bazkaria egingen du igande honetan. Hamar urteotan, bertze zenbait lanen artean 1775 aldiz erabili dute anbulantzia urgentzia ezberdinetan.

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

KOXXKONTA



Sagardotegia zabalik

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

EROSLE

LESACA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

Okindegia bi hilabetez itxiko da

Bitarte horretan ogia inguruko herrietatik ekarriko da

ttipi-flash



Alberto Sansiñena

Hilabetezko bidaia egiteko saria eskuratu du Nafarroako Gobernutik.

Nora izanen da bidaia?

Oraindik ez dakit segur nora. Iparrameriketara nahiago izanagatik, bali-teke Ingalaterrara joatea. Dena den, saria ez da preziki bidaia egitea, ingelesa ikasteko hilabete bat han egotea baizik, klasetara joanez eta mintzatzeko aukera probetuz.

Zer da ateraldi honek bururatzan dizun ilusio haundiena?

Bertze herri bat eta bertze bizimodu bat ikustea. Horregatik dut nahiago Iparramerikara joan, Ingalaterrara nere kontura joatea errexagoa izanen baita.



Eliz aitzineko hiliarrei aurpegia garbitu die Jabierrek

Argazkia: PELLO

'Iberdrola'z kexak

Lehen Iberduero eta orain Iberdrola izenaz, lehen eta orain jaun eta jabe balitz bezala jokatzeko duela-ta, kexu da jendea.

Bere argi-endarreko hari eta habeak paratze eta zaintzeko aitzakitan, belati, landa nahiz arboladietan jabeen erran gabe sartzen

omen da aunitzetan; hurbilean eta ez hain hurbilean diren zuhaitzak moztu, zerakurak pikatu, etabar.

PELLO ETA ALBERTO

Okindegian obra eginen dituzte, garbitasuna eta segurtasuna hobetzeko: zola eta gelaren goia berritzea, errate baterako. Tximinia ere aspaldixkotik errea eta konpontzeko esperoan dago. Bitartean kanpoko ogia janen badugu ere, Andremaritarako Etxalar-ko ogi goxoa izanen omen dugu, berriz ere.

Edateko ura

Udan ur eskasia zelako, Artaineko erre-kako ura hartu zuten 1976an. Horrek, ordea, etxeetara sartzen den uraren kutsadura pro-blema ekarri ditu. Ura ongi irazi edo filtratze-ko modua segurtatu nahi da orain, eta obra 5,5 milioi kostako da.

JOSEMA RAMOS

Zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA



bitxikeriak • opariak • eskulangintza

ALBARTETXEA JATETXEA

HARAGI ETA ARRAINETAN
ESPEZIALIZATUA

Erreserbak egiteko deitu 627637 Ora

Antoiu 26 • LESAKA



KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK
Sukaldaritzarik boberena xokorik politenean

Gurutze Etxea - Jauregieta auzoa - Tfnoa: 635038

• ETXALAR (NAFARROA) •



Ikasturte akabilako irtenaldiak prest dauzkate eskolan

Herriko pala txapelketarako izen ematea zabalik dago

OSKAR TXOPERENA

Ikasturte akabilako irtenaldiak antolatutako dagoeneko eskolan. Eskolaurrekoak ezik, haur guztiak Orioko kanpamendura joanen dira maiatzaren 30etik ekainaren 1era. Eskolaurrekoak, Etxalar eta Arantzakoekin batera, maiatzaren 31an eguraldiak lagunduz gero Irurera joanen dira autobusez, handik Donostiako Ondarreta hondartzara topoz eta arratsaldean aireportua ikustera itzuliko omen dira berriro. Urteroko eskursioa berriz, ekainaren 23an egingen da Zarautzeko hondartzara eta Igeldora. Honekin nahi duten haur eta guraso guztiak hartzen ahal dute parte, autobusa bete arte.



Pala txapelketa

Biltokik antolatzen duen pala txapelketarako izen ematea ireki da. Biltokian bertan ematen ahal da izena ekainaren 5a arte eta azkeneko urtetan bezala bi maila izanen dira.

Diputazioaren eskaerak

Eskaera pare bat etorri da Nafarroako Gobernutik azken egunotan. Batek, minetako etxeak erortzeko arriskuan daudenez bota daitezela eskatzen du. Bertzeak, Iruñeatik Irurera doaien erre-

pideko kunetak garbitu behardituzteladiko, bide batez, terreno partikularretarako sarreretako tuboak zortzi egunen barnean garbitzeko aginduz, bertzela puskatuko dituztela erranez gainera.



Orain arte Bentako zubia zabaltzea baldin bazen aukera bakarra, aditu dugunez, berri bat egitekoa ere esku artean omen dabilki Nafarroako Gobernuak. Asuntua da urteak honekin bueltaka dabilzkitela eta ez dela deus egiten. Bitartean kabitu ezinik ibiltzen dira zenbaitzuk. Apirilaren 23ko istripuan adibidez

Argazkiak: OSKAR


IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

SASKI
OSTATUA
LESAKA


HERRIKO
OSTATUA
ETXALAR
JATETXEA
Dagoeneko zabalik dago Etxalarko plaza, ostatu eta jatetxe berria
© 635290 • ETXALAR


ESTHER ATEAK, C.B.
Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxoak
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak
- ➔ Zolak barnizatu eta kutxilatzen dira



Eskolako ikasleek 14 urteak arte bertan ikasi ahal izanen dute


Bertzalde, kadete mailako aranztarrek Nafarroako herri kirol txapelketa irabazi dute sokatira eta proba konbinatuan

MARTA ITURRIA

1995-96 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako erreforma indarrean jarriko da Nafarroan. Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko Bortzi-rietako institutua Berako Toki-Ona izanen da. Halere, Arantzako eskolan Bigarren Hezkuntza honetako lehen zikloko gela bat antolatu da (12 eta 14 urte arteko ikasleak). Beraz, Arantzako eskolako ikasleak 14 urte arte bertan segitu ahal izanen dute.

Kadeteak txapeldun

Nafarroako herri kirol txapelketan Arantzatik bi taldek bi mailatan hartu zuten parte: infantilak eta kadeteak. Infantilek ez zuten fi-



Urtean bi aldiz bataiatzen ahal dituzte gurasoek beren haurrak Arantzako elizan: azaroan edo maiatzean. Argazkian, maiatzaren 1ean bataiatu ziren bi neskak: Lidia eta Itxaro

nalera iristerik izan, baina kadeteak (500 kilo) Lekunberrin ospatu zen finalean txapeldun izan ziren, bai sokatira baita proba konbinatuan ere. Joxe Ramon entrenatzaileak aipatu digun bezala,

"oso kontent gaude, infantiletan ez dugufinalera iristerik izan baina halere ez zaigu meriturik kendu behar, paperonabete baitugu; eta kadetetan berriz txapeldun eta hurrengo urtean berriz har-

tuko dugu parte".

Bertzalde, Nafarroako futbito Kopan, Arantzako taldea jadanik final zortzirenetan dago. Maiatzaren 21ean goizeko 11etan Arantzaren bertan Noainen aurka arituko dira.

Udalak San Juan mendia erosi du

Udala eta San Juan elkarteak akordio batera iritsi dira azkenean, hauen terrenoak eros-teko. Terreno hauek 530 bat Ha. dituzte eta erosketa 27 milioitan egin da, % 40a Nafarroako Gobernuak emana eta gainerakoa prestamo baten bidez ordainduko da. San Juan elkarteari honela ordainduko zaio: 3 milioi gastuetarako aitzinduak dituen udalak, 20 milioi urte honetako uztailaren 31a baino lehen eta 4 milioi 1995eko martxoaren 31a baino lehen. Azkenean aspaldiko ametsa bete ahal izanen du udalak.

GOZOTEGI-JAIONE

Itzea 3, 630786 - BERA

ATERPE jafetxea

Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28
BERA

INAKI ITURRIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Instalazio zaharren berritzeak

PORTERO AUTOMATIKOAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
☎ 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
☎ (943) 61 24 24
20300 IRUN

ANTZUZELA S.L.

IRUNGO errepidea - 31780 BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

"Abujardadoa" Mazizoa
Zahar antzinakua Txapelduna

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



'Amerikanoen besta' urtero bezala maiatzaren 1ean ospatu zen

Bertzalde, trikitilari eskolako bederatzi bikotek parte hartuko dute Irunen antolatutako txapelketa batean

IXABEL ETA JOSUNE

Urtero bezala, Ameriketako egondutako sunbildarrek bere besta ospatu zuten maiatzaren 1ean eta hogeitabortz bat lagun bildu ziren Ulibeltzak elkartean. Aurtengoan bazkari berezia izan zuten, izan ere jakiak Ameriketako mendietan ikasitako moduan prestatu baitzituzten: ilar gorria eta lurpean prestatutako ogia.

Sukaldariak Joxe M^a Arretxea, Jesus M^a Arretxea eta Fermin Zelaieta izan ziren eta, erran beharrik ez, arrakasta haundia izan zuten aspaldian probatu gabeak zituzten janari hauek berriz ere jaterakoan.



Amerikanoen bestan, aspaldian probatu gabeko jakia probatu zuten, lur azpian egindako ogia alegia

Lehen jaunartzea

Maiatzaren 8an egin zuten beren lehenbiziko jaunartzea sei neska-mutil hauek: Unai Bertiz, Iñigo Oteiza, Goretti Maritxalar, Maitane Ibarra, Maitane

ne Eizagirre eta Nekane Almandoz.

Trikitilari txapelketa

Josune eta Ainhoa trikitilari eskolako ikasleek ekainaren 11an Irunen ospatuko den Trikitixa txapelke-

tan parte hartzeko aukera izanen dute. Irungo Txorimaloak taldeak organizatutako txapelketa da eta eskolatik 9 bikote joanen dira. 1. kategorian: Arantxa Ariztegi eta Irune Ariztegi, Amaia

Ariztegi eta Xabier Ariztegi, Ainara Mindegia eta Arkaitz Mindegia, Iker Bertiz eta Idoia Arauzo eta Aitziber Mindegia eta Jaione Otxandorena. 2. kategorian berriz, Nerea Etxeberria eta Irati Juanikorena, Maria Mutuberria eta Amaia Arretxea, Estibaliz Urroz eta Garbiñe Almandoz eta Lorea Babaze eta Josune Andueza.

Saihesbidearen

ertzetan 160 mota ezberdinetako zuhaitzak landatu berri dituzte. Plangintza berberaren barruan, 350 zuhaixka ezberdinak bertan hazten dira eta belar berriak 60.000 metro karratu inguruko zelaia betetzen du.

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

EPI TELLETXEA

IGELTSEROA

Amezti Berri • Tfnoa: 450749 - 450751

DONEZTEBE

M^a Dolores Mirana TOPOGRAFOA

NEURKETAK • PLANOAK



Lur neurketak

Luberriak

Plantazioak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- ☐ Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.

1. kalitateko koltxoia oso prezio interesgarrietan

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE



Aparkatu ezin diren lekuak horiz pintatu dira

Hauek errespetatzen ez dituzten ibilgailuei multak paratuko zaizkie, ordenantzen arabera

TXEMA ETA KARMELO

Joan den azaroan udalak onetsi zituen zirkulatzeko arauak edo normak, nolabait herriko karriketan zirkulazioa arindu eta traba guttiago sortzeko. Orain, dagoeneko eman da lehenbiziko pausua eta bidegurutzetako espaloiak edo azerak horiz pintatu dira, aparkatu ezin dela seinale. Zenbait tokitan eta karrika bereko bi alderdietako bat ere marraztu da, pasabide estuak ez uzteko.

Honetaz gain, kamioi eta kamionetako karga eta deskarga ere arautuko da eta kamioiendako aparkalekua idekitzen denetik ezin da kamioirik herriko karriketan aparkatu.

Azaroan onartutako ordenantzetan azaltzen da ere, gaizki aparkatua eta arau hauek errespetatzen ez duen autoa, motoa edo kamioneta bildua izanen



Aparkatu ezin diren lekuak ez errespetatzegatik 3.000 eta 17.000 pezeta arteko multak ordaindu beharko dira

Argazkia: TXEMA

dela eta euren jabeek honako tasa hauek ordaindu beharko dituzte errtetiratzeko hori dela eta: motoak 3.000 pzta, 3.500 kg. arteko autoak 6.000 pzta eta hortik gorakoak 17.000 pzta. Gaueko 8etatik goiti egiten bada biltze lana hau, %20ko igoera izanen dute tasa hauek eta besta egunetan %50ekoa.

Kamioi aparkalekurako tasak

Aparkatzeko lekua hartzeagatik honako tasa hauek jarri ditu udalak: herrikoentzat eta inpuestoak hemen ordaintzen duenarentzat hilabeteko 1.000 pezeta. Herrikoentzat eta inpuestoak kanpoan ordaintzen dituenak 2.000 pzta hileko eta azkenik, Do-

neztebekoa ez denak eta inpuestoak hemen pagatzen ez duenarentzat 3.000 pzta hileko.

Erran behar da aparkalekuan etxola bat egonen dela engrase lanak egiteko olio aldatzeko eta gurpilak edo zirrikak haizatu ahal izateko.

ttipi-flash

CAISS edo

Centro de Atención del Instituto de Seguridad Social delakoa egiteko lanak uda aldera hasiko dira lehengo udal-txean. Heldu den urte hasierako martxan paratu nahi da.

Baztan zubian

Mugairitik heldu zen Guardia Civilaren Patrol batek eskuinaldea jo eta gero ezkerreko parera jo eta urratu zuen.

Nafarroako Itzulua

bizikletaz alegia, ekainaren 11an iritsiko da Doneztebera eta etaparen helmuga izanen da eguerdi aldera. Egun berean, eta arratsaldean Doneztebetik Leurtza urtegi-tara erlojupeko igoera burutuko da. Egun hau antolatzea 750.000 pezeta kostako zaio udalari baina kopuru honen % 90a publizitatearen bidez ordainduko da. Biharamonean, Doneztebetik Iruñera aterako dira txirrindulariak.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEn



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN

zure esku gaituzu.

ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA

Tfnoa: 637404

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 DONEZTEBE



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



Zenbait dirulaguntza eman ditu udalak ekitaldi ezberdinetarako

Bertzalde, udalak eskeintza berri bat egingen dio Sagardia familiari Palazikoborda eta Petrikeneko lurren truke

IBAN ISASI

Udalak azken bazarrean hurrengo dirulaguntza hauek ematea erabaki zuen aho-batez: Elizondoko-Lanbide Heziketa institutoan ikasten duten iturendar ikasleei 2.000na pezeta, ikas bidaiarako laguntza moduan. Itoizko proiektuaren kontrako koordinakundeari 7.000 pezeta, Herri Urratseri 10.000 pezeta, Nafarroa Oinezari 10.000 pezeta eta Araba Euskaraz bestakoei 7.000 pezeta.

Euskara ikastaroak

Udan AEKK antolatzen dituen euskara ikastaroak ziuurrenik berriro burutuko dira Iturenen. Azken urte



Iturengo Palazioa

Artxiboa

hauetan bezala AEKKo neska-mutilek euskara ikasiko dute Iturenen eta udalak dituen instalazioak erabiltzeko 125.000 pezeta ordaindu beharko ditu AEKK.

Sagardia familiari eskeintza

Sagardia familiarekin udalak azken urteotan mantentzen ari dituen negozioaziotan eskeintza hau egitea erabaki zen: Sagardia

jaunak Petrikeneko belagiko 3.000 m² eta Palazikobordako lur zatia emanez gero udalak Karnizeriaetxea emanen lioke trukean.

ttipi-flash

❖ **Palazikobordako** aparkalekuan hats egiteko edo deskantsurako toki bat egitea eskatuko zaio Nafarroako Gobernuko Ingurugiro sailari.

❖ **Ontzalekun** birlandaketa egiteko udalak lur zatiak Nafarroako Gobernuari emanen dizkio.

❖ **Udalak** Malerrekaako Mankomunitatean, kontzientziaragozle edo objetore direnek, ordezkio zerbitzua inguruan egin dezaten erakunde laguntzaile gisa agertzea onartu zuen

zintaren **URTARO BERRIEN ARROPAK**

San Migel auzoa 27, 450883 - DONEZTEBE

ETXANDI TXOKO
erretegia
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN • Tfnoa: 45 04 91

ZURE GORPUTZA ZURE ALTXORRA DA
Aukeratu zure neurria . Hobetu zure figura.

Zentru mediko-estetikoa

- Jean Paul Bouchet Doktorea (faculté de Medicine de Paris)
- Amaya Picabea (estetikan diplomatua)

Behar duzun laguntza eskeintzen dizugu, pertsonalizatutako programei esker

Gainera:

- Aurpegirako tratamenduak
- Depilazio elektrikoa eta argizariarekin
- Azken nobedadea: **ZELULA FRESKOEN** aplikazioa

LEHENDABIZIKO KONTSULTA DOHAIN

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Amaya

Lurrindenda • Apaindegia
Amezitia karrika z/g
© 450163 • DONEZTEBE

T Hiruhilabeteko xokoa

Leitza eta
Goizuetako Euskara
Batzordeen
Argitalpena

Argitaratzailea: Leitza eta Goizuetako Euskara Batzordea. Tfnoak: 610636 (Leitza) eta 504400 (Lekunberri)
Montajea, Maketazioa eta Banaketa: ttipi-ttapa

Aurkezpena

Leitza eta Goizuetako Euskara Batzordeek, gehigarritxo honen bitartez, gure herriotan euskara eta kulturaren inguruan sortuko diren berriak zabaldu nahi dituzte. Honetaz gainera, interesgarri izan daitezkeen kontakizun, gertaera edo istorioei ere lekua ematen edota eztabaida gaiak plazaratzen saiatuko gara.

Urtearen buruan honelako 4 ale argitaratu nahi genituzke, gehiegi ez bada ere, zenbait berri eta gauza jakingarri plazaratzeko balioko duelakoan. Zu ere, nahi izanez gero, gehigarri honetako berriemaile izan zaitezke, eta horretarako nahikoa izanen da gai hauen inguruan zerbait idatzi eta Udaletxera bidaltzearekin, Euskara Zerbitzuaren izenean.

Oraingo honetan, eta maiatzaren 22an Leitza UEMAren eguna ospatuko dela kontutan hartuz, guzti honen berri ematen ahaleginduko gara:

UEMA, zer da?

Seguraski, jende askok galdetu izan dio bere buruari zerote den UEMA delako hori. Izenak,

Maiatzaren
22an
UEMAren
Eguna
ospatuko
da Leitza



Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea esan nahi du. Hala ere, izenak baino izanak du garrantzia: erabat euskaldunak diren herrietan euskaraz bizitzearen aldeko proiektua da UEMA, eta proiektu honetan sartu dira Leitza eta Goizueta. Hauetaz gain, herriok osatzen dute Mankomunitatea: Nafarroako Urdiain, Gipuzkoako Altzo, Oresa, Aizarnazabal, Lizartza, Gaintza, Errezil, Baliarrain, Orendain, Leaburu-Gaztelu-Txarama eta Bizkaiko Dima, Munitibar, Etxebarria, Gizaburuaga, Nabarniz, Aulestia, Gatika eta Zea-

nuri.

Mankomunitatea udalak sortu badute ere, helburua ez da udalak euskaraz funtzionatzea, udalerri osoa euskaraz bizitzeko baizik. Gure aurrekoak euskarari eutsi dioten bezala, guk ere eustea da helburua eta euskaraz bizitzeko erronka honetan denok dugu tokia, denok egin beharra.

UEMA duela 3 bat urte sortu zen, beraz jaio berria dugu eta lehendabiziko pausuak ematen ari da. Gure udaletan ezarritako helburu hauek betetzeko bost urteko programazioa prestatu zen. Bertan, hurrengo urte-

tan emanen diren urratsak azaltzen dira:

- langilegoa: behar duten maila lortzeko alfabetatzea.
- errotulo, zigilu, kartazalak eta idazpuruak.
- jendearekiko harremanetan euskarari tratamendu egokia eman.
- udal barneko lanean euskara normalizatu.
- zinegotzien alfabetatzerako urratsak eman.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea oraindik indartu beharrean dago, behar bezala hazi dadin. Honetarako, eta gero eta ezagunagoa izan dadin, urtero UEMAren eguna ospatzen da.

UEMAren eguna, Leitzan maiatzaren 22an

Aurten ospakizun hau Leitzan egingen da maiatza-
ren 22an, Kultur Astearekin bat eginez bere azkeneko
egunean. Egitaraua hau izanen da:

9,00etan.

Diana

11,00etan.

Txistulariak, Txaranga, Kalejira.
Artisau - erakusketa.

11,30etan.

Ekitaldi instituzionala.

12,30etan.

Ekitaldi publikoa.
Ondoren bertsolariak:
*Estitxu Arozena eta
Bittor Elizagoien*

14,30etan.

Zikiro jatea.
Bertsolariak.

16,30etan

Pailazoak:
Popi eta Zaratrako

18,00etan

Erromeria:
Imuntzo eta Beloki



Indarrak batzen Herri Euskaldunak Zabaltzen

Karrape Irratia

Martxoa eta apirilean zehar Leitzan Karrape irratiari buruzko inkesta bat egin zen. Honen bitartez, irratiaren inguruko eritziak bildu eta bere kalitatea hobetzea lortu nahi dugu. Zortzigaldera zehatz egin genituen, eta erantzun kopurua guk nahibaino eskaxagoa izan bada ere, hauek dira emaitzak:

- **Ordute-girik egokiena**, eguerdia da gehienentzat, diferentzia haundiz.. Programazioari dagokionez, "ona", "nahikoa" edo "oso ona" dela uste dute

gehienak, bakarren batek "txarra" edo hobegarrria dela uste badu ere. Bestalde, **programazioa** denontzat prestatu behar da eta denetarik sartu beharko litzateke. Euskadi Irratiarekin egiten den konexioa interesgarritzat jotzen da, baina badira "interes gutxikoa" edo gabekotzat jotzen dutenak.

'Zein euskara erabili behar da?' galderari, erdiak "biak" erantzuten dute eta beste erdiak "bertako hizkera".

Azkenik, **udal infor-**

mazioa eta informazio lokala ematea ere "oso interesgarritzat" jotzen da orokorrean, salbuespenak egon arren.

Bestalde, **eritzi, kritika edo proposame-**



Inkestaren bitartez entzuleak Karrape Irratiaz duen eritzi ezagutu ahal izan da.

netarako hutsunean ere ideia ezberdinak bildu dira: euskararen konzientzia sortu beharra, euskararen erabilera egokiak duen garrantzia, jendearen, eta konkretuki, gazteen partehartzea, bertako informazioa gehitzea, programazioari buruzko proposamenak, telefonoak egokitu, buzoi bat jarri, gai gehiago sartu, etabar...

Leitzako Euskaltegia



Umore ona ere beharrezkoa da euskara ikasteko

Dagoeneko ikasturtea bukatuxea dago. Baten batek esan lezake ea zer den euskaltegi bat, zer demontre egiten den edota Leiza euskalduna izanik zertarako euskaltegi bat? Historia pittin bat egin dezagun batzuen "burua" freskatu eta besteen jakin mina asetzeko.

Batek baino gehiagok gogoratuko duzue gaur eskolaren hasiera eta garai hartan euskara eta euskalduntzearen aldeko mugimenduak zuen garrantzia. 24 urte pasatu dira. Geroztik aldaketa franko eman da, gau-eskola, etxe-txuriko barne-tegia, uda-ikastaroak eta azken bost urteotan udal-letxeko txoko batetan lanean ari den euskaltegia.

Ordutik hona, adin guztietako makina bat lagun izana da klaseetan,

zuten helburua ederki betez. Zein helburu esanen duzue seguru aski? Batzuk, euskara ez zekitenek, ikasi dute edo saiatze horretan ari dira, besteak berriz, EGA titulua lortu dute, eta gaitz nontzeko guztiak idazten, irakurtzen eta euskaraosatzen ari dira.

Baten batek Leitzan, euskararen egoera moldatua dagoela pentsa dezake. Zoritzarrez, ez da hala. Aditza besterik ez duzue tabernetan nagusitzen ari den giro erdalduna, edo guraso askok euren artean erdaraz eta umeekin euskaraz aritzeko duten joera edota...

Ikusten duzuenaz, Leitzan ere zeregin franko dago. Saia gaitzen denon artean Euskal Herria euskalduntzen baina etxetik hasita.

93-94 IKASTURTEKO DATUAK


	Euskalduntzen	Alfabetatzen	EGA	
LEITZA	20 ikasle	26 ikasle	10 ikasle	56
GOIZUETA		9 ikasle	10 ikasle	19
Imotz-Bas.	13 ikasle	11 ikasle		24
LARRAUN	21 ikasle	11 ikasle		33

Umore Ona elkarte

Umore Ona elkarte instituzio bat bihurtu da Goizuetako herrian. Duela 9 urte sortu zen hainbat herritarren ekimenez. Orduan, Umore Ona sortu zuten bazkideen kopurua 99 lagunekoa zen eta bederatzi urte beranduago ia bikoiztu egin da.

Errealitate eder hau aztertzerakoan kontutan hartu behar da orain dela bospasei urte arte bazkide izan nahi zuen edozeinek ordaindu beharreko diru kopurua haundituz joan zela urtetik urtera, eta honek gazte askori ateak ixten zizkiola. Horretaz oharturik eta kontutan harturik elkartearen etorkizuna gazteengan zegoela bi kuota desberdin ezarri ziren sarrerarako: dirua ordaintzerakoan: alde batetik 25 urtetik beharreak ordaindu beharrekoa, eta bestetik 25 urtetik gorakoak. Neurri horrek arrakasta ikaragarria izan zuen, azken urte hauetan sartutakoak gehienak gazteak baitira.

Umore Ona elkarte herriaren erdi erdian kokaturik dago, plazan bertan. Ezta esan behar ez dagoela Goizuetan osoan beste toki hobeagorik ordezkari dezakeenik. Berez lokala herriarena da, baina sortu zenetik elkarte han aurkitzen da. Orduko zinegotziek lokala alokatu ahal izateko baldintza bat jarri zieten: edozein motatako ekintza edo aktibitateak bultzatu eta babesteko herrian. Udalaren eskakizun hau ongi



baino hobekiago betez, urte guzi hauetan atal desberdinak sortzen joan da elkartearen heniko premiak betetzeko. Gauegun bost atal ditu: dantzariena, mendia, pilota, sokatira eta futbito.

Atal bakoitzak bere komisia du eta elkartearen komisia hamar pertsonen osatua dagoenez, ahaleginak egiten dira elkartearen komisiokide bat atal bakoitzeko komisiaren egon dadin, horrela nola baitaiteko lotura eta informazio trukaketa lortzea espero da.

Atal bakoitza ahal duen neurrian autonomoa da eta urtean behin kontuak eman behar izaten dizkio elkarteari. Atal zaharrenak eta indartsuenak dantzariena eta pilotarena dira, bai jende kopuru aldetik eta baita urtean zehar be-

har duten edo mugitzen duten diru kopuru aldetik ere.

Urteko aktibitateak

Elkartearen estruktura-zioaz hitzegun dugu orain arte baina estruktura-zio hau ekintzak aurrera eramateko sortua dago, honela elkarteak urtean zehar burutzen dituen ekintzen artean batzuk, atalek berek antolatzen dituzte, eta besteak, elkartearen komisiaren esku egoten dira.

Atalez atal aurrera eramaten diren ekintzak hauexek izanzen liratekeen: **pilotako atala** klub bat bezala funtzionatzen duenez, klubaren arteko txapelketan parte hartzen du. Bere esku gelditzen da ere, nahi duten torneo eta txapelketetan parte hartzea.

Mendiko atalak normalean urtean pare bat ateraldi antolatzen ditu. Aurtan, hain zuzen, Belagura egun pare bateko ateraldiak prestatu zuten apirilko, eta urtero Goizuetatik Igantzi bitarteko ibilbidea prestatzen dute.

Dantzarien atalak urte osoan zehar herriko umeei dantzak erakusten dizkie eta emanaldi batzuk eskaintzen dituzte herritik kanpo ere, normalean uda partean. Goizuetako jaietan eta ekintza inportanteetan ere beti hor izaten dugu Umore Ona dantza taldea.

Sokagirako atalak Nafarroako bigarren mailako txapelketan parte hartzen du 600 eta 640 kilotan eta aurtan herrian bertan antolatu dute bederatzi taldeen artean lehen Umore Ona txapelketa.

Azkenik **futbito atala** ren ardurapean eta Gazte Asanbladarekin batera gelditzen da Goizuetako txapelketaren antolakuntza eta Gipuzkoako hirugarren mailako futbito txapelketan parte hartzen dute.

Ekintza hauetaz aparte elkarteak herriko zaharren eguna eta atal ezberdinen eguna antolatzen ditu. Baita truk eta mus txapelketa ere. Eta azkenik herriko jaietako antolakuntza arduratzen oso inportantea du, txaranga kontratatzeaz gain bera baita bostgarren egunaren antolatzailerak.



'IV. Josetxo Ezkurra' memoriala akitu da

Bertzalde, Langarra Euskara taldea Iruñean aurkeztu zen ofizialki maiatzaren 11an

TXEMA ALDABE

Maiatzaren 1ean ospatu ziren Doneztebeko frontoian eskuz binakako 'IV. Josetxo Ezkurra' memorialeko finalak.

Prebenjaminetan: Oskariz (Arizkun) eta Ibargarai (Erratzu) 18; Bertiz eta Iker Irazokik (Doneztebe) 14.

Benjaminetan: Atxa (Almandoz) eta Ibarak (Ziga) 18; Etxenike eta Arraztoak (Irurita) 11.

Alebinetan: Atxa eta Bidegainek (Elizondo) 18; Ehiegarai eta Jaurrena (Urdazubi) 14.

Infantiletan: Zozai (Labaien) eta Huartek (Elizondo), Urrutia (Saldias) eta Baleztenari (Eratsun) irabazi zieten.

Helduetan: Luis



'IV. Josetxo Ezkurra' esku pilota memorialean txapeldun suertatu ziren bikoteak

Martin (Doneztebe) eta Modesto Ordokik (Arantza) 22; Berho (Mugairi) eta Retegik (Eratsun) 14.

Memorial hau Txaruta pilota taldeak antolatu zuen, CAN, Doneztebeko udala, Arin zerbitzuak eta Martin

harategiaren laguntzaz.

Sariak ematera Ruben Beloki pilotaria etortzekoa bazen ere, ez zen azaldu.

ttipi-flash

❖ Narbarten

semaforoak paratze lanak Noaingo 'Montajes eléctricos Feler' enpresak eginen ditu, 3.887.645 pezetaren alde. Lanak hasi ondotik hogeitaz egun izanen dituzte hauek akitzeko.

❖ Saldiaserako

errepidea hobetzeko 3 milioi pezetako gastua onartu du Nafarroako Gobernua eta lan horiek 'Azpiroz y Saralegi' enpresak eginen ditu. Lanak urgentziazkoak ziren, azken euriteen ondorioz karreteraren zola eroria baitzen.

❖ Langarra

euskara taldeak maiatzaren 11an egin zuen bere aurkezpena Iruñean. Malerreka euskararen egoeraz, taldearen sorreraz eta osaketaz aritu ziren prentsaurrean.



• OTORDUAK •
• LOGELAK •

Tfnoa: 450793

ADUR TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA



AKORDEOIAREN
GOI-MAILAKO
AKADEMIA

Angel Manuel Belio

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMINĖNEA Etxea

San Andres karrika, 40 - NARBARTE

© 943 - 61 50 55



Haurrendako
Moda

Txirrista

Elizagibela 4 • © 450881 • DONEZTEBE



Umore Onak antolatutako bertso afaria maiatzaren 28rako

Egun berean rock kontzertua izango da Karkaxa, Brankan eta Anima Vili taldeekin

ESTEBAN AROZENA

Denboraldi batean maiz aski antolatzen baziren ere, urte betetik gora joan da herrian azken bertso afaria izan zenetik. Hori kontutan izanik, bertso eskolak hartu du oraingoan ardura, eta maiatzaren 28an, Umore Ona elkartearen eta 2.200 pezetan truke afari eder batez gain Sorozabal, Zeberio eta Loidisaletxeren bertsoak entzuteko aukera eskaintzen zaie bertsozale guztiei. Txartelak herriko tabernetan salgai daude eta 90 bakarrik banatu direnez, ahal den azkarrena erostea gomendatzen zaie interesatuei.



Mus eta truk txapeldunen artean ama eta bi seme

Arg.: Xabier Mikel

Rock kontzertua

Eta Umore Onatik pilota plazara, rock kontzertu paregabea

antolatu baitu gazte asanbladak egun berean. Taldeak hauek

dira: Karkaxa, Brankan eta Anima Vili.

Sarituak

Nafarroako Gobernuko Literatur lehiaketan Ainhoa Ansa, Gorka Irazusta eta Eneritz Arozena sarituak izan dira. Sariak Markotegi kontseilariaren eskutik jaso zituzten.

Txapelketak

Umore Onako Truk txapelketan M^a Carmen Tomasena eta Iñaki Rodriguez suertatu dira irabazle J.J. Aizkorbe eta Mirentxu Tomasenaren aurka. Musean aldiz, Antton Rodriguez eta Mikel Elizegi, Mañoli Loliarte eta Joxe Goizuetaren kontra.



Eguraldi ezin hobearekin ospatu zen Kultur Eguna

Aresoko sokatira taldea laugarren postuan sailkatu zen

JUANA M^a SAIZAR

Meza eder eta alai batekin eman zitzaion hasiera: bertsoak, dantzak, loreak... Ume batzuk akordioarekin kalejira egin zuten plazaraino eta han zeuden ikusgai kaikuak, armariak, seaskak, karteak... Udaletxean bestalde, ikusgai zeuden umeen eskulanak, argazki zaharrak eta Beltzaren margoak eta eskulanak. Guraso elkarteak txozna batean



Giro polita izan zen kultur egunean

Arg.: Juana Mari

taloak eta pintxoak banatu zituen. Umeen dantzak eta bertsolariek

bete zuten goiza. Herri bazkarian 100 lagun inguru elkartu ziren eta

segidan Nafarroako Sokatira Txapelketa ikusteko aukera izan

genuen. Lesakarrak txapeldun suertatu ziren merezimendu osoz. Bigarren Araiz-Betelu eta hirugarren Larraun. Tiraldien bitartean umeen jokuak izan ziren Plazan. Dantzaldiak eman zion bukaera egun polit honi.

Aresoko taldea laugarren postuan gelditu zen. Izan ere, taldeko bati gertatutakoagatik ez ziren nahi bezain ongi aritu. Animo eta zorionak dena dela.



XVI. Leitzako Kultur Astean bete-betean sartuak gaude

Bestalde, Leitza, Goizueta, Areso eta Arano inguruko euskara ikertzeko beka-deialdia luzatu da

JOSEBA AZPIROZ

Bete beterik sartuak gaude Kultur Taldeak antolatutako Kultur Astean. Hamaseigarrena bada ere, ez dago errepikaketarik, antolatzaileek aurten ere berrikuntzak sartu baitituzte programazioan (Jubilatuen eta UEMaren egunak besteak beste) eta gauzotasun eta interes haundiko ekitaldiak ikusi ahal izanen ditugu (mahai-inguruak, kirolak, musika, bertsolariak, pailazoak, txotxongiloak, magoak...), honako egun eta ordu hauetan:

Ostegunean, hilak 19, arratsaldeko 7,30etan, 'Pakea, posible ote da?' izenburuarekin Iñaki Perurenak bo mahai-ingurua zinean, Eliza 2000, Elkarri, Gestorak, Senideak, Gestopor la Paz eta Denon Artean taldeetako ordezkariekin. Ostiralean, gaueko 10,30etan, Garaialde



Nafarroan katekesia euskaraz ematen duten herri guzietako haurrak bildu ziren Leitza Euskal Katekesien bileran

Argazkia: Joseba

Jazz Quartet taldea zinean. Larunbatean, eskualdeko txirrindularien frogak, 6etan musika eskolako enaldia elizan eta gauean, 11tatik aurrera potea alaitzeko, Jauruta txaranga. Igandean, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen festa eguna ospatuko da (ikus gehigarria). Igandean, XIV. Eskulagintza erakus-

keta zabalduko da. Astean zehar ere, zenbait erakusketa ikusi ahal izanen ditugu: Guratzmendi elkartearen zernamika erakusketa; Aurrieran, Intsumisio eta argazki erakusketa eta udaletxearen berriz, lehen pisuan jubilatuen eskulanak eta bigarren "Leitza argazkitan" erakusketa eta Leitzako maketa. Miguel Elosegia, maketa-

ren egileak herriari oparitu dio maketa eta udaletxearen geldituko da. Argazki erakusketak, lehiaketa ere izanen da. 230 toki azalduko dira, 1974. eta 1994. urtean ateratako argazkietan eta toki horien izenak asmatu beharko dira.

Kultur Taldearen urteko aurrekontuaren (3 milioi erdia), kultur asteen joaten da.

Leitza, Goizueta, Areso-Aranoko euskara ikertzeko beka-deialdia

Herri hauetako udalek egindako beka deialdi honen helburua bertako euskarari buruzko ikerketak globala egitea da. Lana Euskara Zerbitzuaren ardurapean burutuko da 14 hilabeteko epean eta ikerlanerako iturriak ahozkoak zein idatzizkoak izanen dira. Laguntza berriz, 800.000 pezetakoa izanen da. Parte hartzeko, Euskal Filologiako ikasketak amaituta izatea edo azken urtea egiten ari izatea eskatuko da edo epaimahaiaren iritziz "curriculum vitae" egokia izatea. Interes atuek eskaera eta lana nola burutuko luketeen azaltzen duen txostena Leitzako udaleko idazkaritzan ekainaren 23a baino lehen aurkeztu behar dituzte.



EKIPAL

Komertziorako mogleen fabrika

Kalitate eta prezioaren arteko orekarik boherena

Edozein klasetako komertzioa duzula, ekipatzeko behar dituzun mogle guzti guztiak guk fabrikatuko dizkizugu

Lantegia, almazena eta erakusketa:

Bekolanda auzoa • 514225 • Faxa: 514271 • GOIZUETA





Museo etnografikoa egin nahi da Lekarozko Kolegio zaharrean

Bertzalde, Kiwi Baztanek 20.000 kilo kiwi salduko ditu Holandara

J. IGARABIDE

Baztango udalak museo etnografiko bat egin nahi du Lekarozko Kaputxinoen ikastetxean. Bertan, kolegioko lehenagoko gauzak eta intereseko oroigarriak bildu nahi dira, Natur Zientzietako Museoarekin bezala gerta ez dadin.

Hasiera batean, gauza hauek bilduz, fondo bat egingen zen etorkizunean museo hori osatzen joateko. Udalak interese haundia erakutsi du aferan.



Lekarozko kolegio zaharreko intereseko gauzak bildu nahi ditu udalak

Kixi Baztanek 20.000 kilo esportatuko ditu Holandara

Kiwi Baztanek 20.000 kilo kiwi bidaliko ditu Holandara, Van Dyck enpresarekin egindako lehen operazioan. Azken uztan, 350.000 bat kilo bildu dira 40 hektareatan. Orain arte gehien bat, estatuko supermerkatu bateri eta inguruko hiriburu eta

dendei saltzen ziztaion.

❖ **Aste Santuan** banatutako Baztango turismo gidaren akatesek haserre haundia sortu dute: testuak mozturik, publizitatea datuen faltan, argazki txarrak eta gainera, euskarazko itzulpen txarra omen du gidak.

9 milioi t'erdi pezetako diru laguntza Elizondoko eskola eta ikastola moldatzeko

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultur sailak 9 milioi t'erdi pasatuak eman dizkio Baztango udalari, eskola publikoan eta ikastolan zenbait moldaketa egiteko.

Eskolan, larraina moldatu, 2. eta 3. solairuetako pertsianak aldatu, zenbait margo eta

zurgin lan egin eta kubierto aldatu nahi ziren, guztira 13.898.306 pezetako aurrekontuarekin. Ikastolan berriz, terrazzen inpermeabilizazioa modatu nahi zen, 852.150 pezetako gastuarekin. Bi ikastetxeetako lanak %65ean lagunduko ditu Nafarroako Gobernuak.

ttipi-flash

❖ Arizkun

bi zubi berri egingen dituzte, bata Mokorroko inguruan eta bertzea Pertalaxerrekan.

❖ N-121-A eta B

errepideak lehenbaitlehen moldatzea eskatu dio udalak Nafarroako Gobernuari. Udalaren us-tez inoiz baino gaizkiago daude errepide hauek eta bide bazterrak garbitzea, zola berritzea eta erdiko eta bazterretako marrak pintatzea eskatu du.

❖ Laudio

institutuko 30 ikasle inguru Baztanen egon ziren maiatzaren 2an. Bertzeak bertze, Arizkunenea eta Xorroxin irratia bisitatu zituzten.

❖ Gero eta

gehiago dira karrika salmentarako postuak eskatzen dituztenak udalean.

LARRAMENDI • Supergarbiaketa Idorrean

Saskaitz plaza 1 (Butano ondoan) • ☎ 45 23 81 • ELIZONDO



Edredoia, alfonbrak, arropak eta larruak, idorrean garbitzen dugu

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDABERRIKO MODA

Soina eta Konjunto berriak

*Puntu-zuko kamisetetan
aukera zabala*

*Klase guzitako konplementoak
Opariak ere bai*

Berroetako bestak maiatzaren 20tik 23ra ospatuko dira

Bertzalde, Berroetako Escolastica Habans eta Juan Erasok hirurogei urte bete dituzte ezkontuta

PABLO MENDIBURU

Maiatzak 20, ortzileria:

8etan altxaferuak botako dira eta hauekin batera Doneztebeko txistulariek herriari itzulia emanen diote.

10etan herri afaria eta segidan dantzaldia 'Joxe Angel' eneskutik.

Maiatzak 21, larunbata:

11,30etan haurren jokoak. 7,30etan Baztango dantzarien emanaldia. Gauez dantzaldia 'Equus'ekin.

Maiatzak 22, igandea:

11,30etan meza nagusia txistulariekin eta hameketakoa.

6,30etan herri kirolak Basaburua eta Berriozarko neska-mutil taldeak arituko dira proba konbinatu eta sokatiran. Arratsaldean eta gauez dantzaldia



Zigako Santi Ibarra eta Almandozko Garikoitz Ibarra txapeldun suertatu ziren benjaminetan Doneztebeko IV. Josetxo Ezkurra memorialean

'Equus' taldearekin. jatea bertsolariekin.

Maiatzak 23, astelehena: Arratsaldean dantzaldia

12etan mus txapelketa. 2,30etan zikiri Joxe Angelekin eta herri afaria.

60 urte ezkontuak

Berroetako Juan Eraso (Leitzan jaio-takoa) eta Escolastica Habans-ek 60 urte bete dituzte ezkontuak. 1934ko maiatzaren 2an ezkontu ziren eta 5 seme-alaba izan dituzte. Orain biak 87 urte-ekin eta familiarekin batera besta egin zuten maiatzaren 8an.

Lehen jaunartzeak

Aurten ez dira izanen ez Almandoz ezta Anizen ere. Berroetan, azken hiru urtetan ez badira izan ere, joanden igandean Arantxa Gamio egin zuen jaunartzea. Zigan, Iñigo Iribarren eta Itsaso Otondok egingen dute hilaren 29an.

ttipi-flash

Basaburuko

herri kirol taldea Iruritan aritu zen igandean. Hurrengo saioa, larunbat honetan Lekunberrin burutu beharrekoa izanen da (txapelketa) eta igandean Berroetan.

Askapeko

harrobi ondoan Orabidera doaien karreteraren trazadua aldatu behar dute laister harrobia haunditzeko asmotan baitabilta.

Erratzuko

kanpina uda honetarako martxan jartzea espero dute jabeek. Bertzalde, Erratzuko frontonaren gibelaldeko obrak oraindik akitu gabe daude, aspal-dixko hasiak badira ere.

50.000

pezetako dirulaguntza eman dio Baztango udalak DYA erakundeari.

Eskisaroï jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013

ELIZONDO

SAS KAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de



Era guztietako instalazioak:

Etxekoak, industrialak...

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortziratera Betatik antzineria
Larunbat eta jaiegunetan zabalik

© 452121 • LEKAROZ

- * Jardinak apaintzeko landareak
- * Barneko planta extranjerotik ekarria
- * Marokkoko artisau lanak
- * Koroiak
- * Komuniotarako erregaloak
- * Ezkontzarako apaingarriak



LOREDENDA • GARDEN CENTER

MERKEALDIAK jardinetako osagarrietan

Aritzondo (Bergara Auzoan) • Tfnoa: 580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE



KOMUNIOAK

Kanpaina berri honetan, eskeintzen dizkizugun oroigarrien artean baduzu non aukeratu.

Hartu orduea:

ELIZONDO ☎ 580491

DONEZTEBE ☎ 450364

EGUN HAUNDI BATETARAKO
OROIGARRI ON BAT



Herri Urrats gauean aro txarra izan arren 2.500 bat jende bildu zen

Igande honetan bertzalde, 'Sarako Itzulia' ibilaldia iragaitekoa da eta aurten Larrun kaskorat beharko da igan

MIXEL ETA JACQUELINE

Zorigaitzez aurten aroak ez du batere bortzgarren Urrats gau hori lagundu. Kontzertuak ez dira egiten ahal izan bainan hala ere, 2.500 bat jende bildu dira. Dantzaldia, bertsu saioa preziatu ahal izan dute. Gaineratezin dezakegu ahantzi Bera eta Lesaka auzo herrietarik etorri Zizkuitz - Izar txarangak eta Xafrer trikitilariak alaitu dutela Sarako plaza. Eskerrak zor ditugu beraz bai antola-tzaileeri, bai edozoin modutan ekintza hontan parte hartu duten guzietari baita ere sorroak aparkaleku edo kanpaleku bilakatzeko eskaini dituzten saratarrei, hala nola Omordi etxe-



Lehen aldiz Larrun kaskorat igaiten da Sarako Itzulia aurten

ko Indart jauna eta Jean Arrieta Trinketeko Trinketeko nagusia.

Biharamunean eguraldia hobetu zen eta Senperoko aintziraren inguruan 80.000 lagun bildu ziren Herri Urra-

tsen karietarat. Agian aurtengo urratsek negoziaketak bultzatuko dituzte alde onerak.

Sarako Itzulia

Igande honetan,

maiatzak 22, iragaitekoa da aurtengo Sarako Itzulia ibilaldia. Berzitasun bat badauka aurtengo itzuliak: Larrun kaskorat beharko da igan. Bertzalde, usaiko bazter eta gu-

neetan barna beharko da ibili.

Xehetasunetan sartu gabe, erran dezakegu izen emateak lekuaren gainean egiten direla abiatu aintzin, 6ak eta erdietarik goiti oihalezko aterpe batean. Ibilaldian parte hartzeko 25 libera beharko dira ordaindu. Gainerat egunaren antolaketagatik abiatze tenoreak behar dira baitzpadarrespetatu: beraz goizeko 7ak eta 8ak artean abiatuko dira.

Bertzalde, oraitik goiti urtero izan beharrean bi urtetarik iraganden da Sarako Itzulia. Oinez ibiltzea maite duten guzien hitz-ordua ezezazu ahantz zuzere. Zato gurekin!

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI



KIWI BAZTAN, S.A.



MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01

Fax-a: (948) 58 11 01

FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN
ZUZENeko SALMENTA



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI



Ardoak eta likorrak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

PELUAGA SINTESIS



● OSAGARRIAK ●

GAURKO EMAKUMEARENTZAKO MODA

Colon Pasealekua 7 • ☎ 943-622816 • IRUN

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



Herriko bestak akitu ondotik maiatzaren 28ko gau-pasa prestatzen ari dira gazteak

Mus txapelketa ere umore onean akitu zen



X. mus txapelketan, Domingo Borda eta Patxiku Bengoetxea txapel-dun eta Daniel Halty eta Periko Ariztia txapeldun orde suertatu dira.

partearen errifaren zoz-keta eta suzko zezena. Musikari dagokionez,

asteazkenean Modesto, ortzegun eta ortziralean Iñazki, larunbatean

Izadi eta igandean Jose Angelen eskutik izan da.

ttipi-flash

❖ **Mus txapelketa**
maiatzaren 6an bukatu zen. Argazkiak dituzue xapel-dunak eta xapeldun ordeak. Afaria eta dantzaldiarekin eman zioten akabera egunari.

❖ **Gau-pasan Joselu Anaiak**
Maiatzaren 28rako antolatua dagoen gau-pasan 'Joselu Anaiak' taldeak joko du.

❖ **Heriotza**
Mikelenbordako Martina hil zen maiatzaren 9an 92 urte zituelarik.

Gaupasan ateriko den dirua kultur ekitaldietarako erabiliko da

Hau dela eta, Akelarrea elkarte sortu da, bestak eta kultur ekitaldi horiek antolatzeko helburuarekin



Argi eta telefono hariak lur azpian sartzen ari dira

nen helburu nagusia hori izanen da, bestak antolatzea eta kultur-ekintzak egitea.

❖ Herria satorrez

beteta dugula iduri du egun hauetan. Afera, argi eta telefonoaren hariak lur azpian sartzen ari dituztela da. Bertze itxura hartuko du herriak, alde batetik bertzera zintzilika ageri diren hari itsusi horiek desagertuko direnean.

EZKONTZAK

Jose Mari Eltzaurdia Agirre eta **Gurutze Ariztia Plaza**, Berakoa eta Urdazubikoa, maiatzaren 14ean.

Nicolas Etcheverry eta **Nathalie Zubiri**, Ahetzekoa eta Sarakoa, maiatzaren 6an.

Elies Tapia eta **Maria Nieves Garrido**, Sarakoa eta Berakoa, maiatzaren 7an.

Angel Gago eta **Itziar Lukanbio**, Sunbilla eta Arantzakoa, maiatzaren 7an.

JAIO TZAK

Alvaro Perez Aragon, Doneztebekoa, apirilaren 11n.

Ander Oskoz Gago, Doneztebekoa, apirilaren 12an.

Nerea Matxiñena Lasaga, Doneztebekoa, apirilaren 25ean.

Jon Olazar Baleztena, Doneztebekoa, maiatzaren 1ean.

Mikel Ezkieta Huizi, Doneztebekoa, maiatzaren 4ean.

Iñigo Lizasoain Uterga, Elizondokoa, apirilaren 30ean.

Miren Arregi Mortalena, Elizondokoa, maiatzaren 4ean.

Amalur Narbarte Eskudero, Goizuetakoa, maiatzaren 1ean.

Larraitx Salaberria Etxeberria, Goizuetakoa, maiatzaren 6an.

Pamela Errandonea, Sarakoa, apirilaren 8an.

Iratí Otxoteko Arlegi, Lesakakoa, apirilaren 26an.

Miren Sein Goñi, Iturengoa, martxoaren 17an.

Julen Altxu Etxebeste, Iturengoa, 1993ko abenduaren 18an.

Silvia Telletxea Iraola, Arantzakoa, maiatzaren 3an.

HERIOTZAK

Antonio Irigoien Mihura, Erratzukoa, maiatzaren 5ean, 63 urte.

Enriqueta Viu Aranberria, Elizondon, maiatzaren 6an, 74 urte.

Martina Cordoba Jauregi, Urdazubin, maiatzaren 9an, 92 urte.

Juana Usabiaga Arribillaga, Leitzakoa, apirilaren 27an, 71 urte.

Maria Apezetxea Zinkunegi, Goizuetakoa, apirilaren 30ean, 101 urte.

Pedro Agirre Agirre, Berakoa, apirilaren 26an, 72 urte.

Bonifacio Telletxea Iantzi, Lesakakoa, apirilaren 29an, 65 urte.

Ramona Albistur Arretxea, Lesakakoa, maiatzaren 2an, 88 urte.

Jose Mari Gainza Erro, Berakoa, maiatzaren 12a, 99 urte.

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



- **MEKANIKA:** } Kotxea, traktorea...
 - **SOLDADURA:**
 - **OIHANZANTZA** edo **FORESTALA**
 - **NEKAZARITZA** eta **MEKANIKA**
 - **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**
- BI URTE**

Nor matrikula daiteke?

OHO edo EGB egin eta zuzenean, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

EUSKARAZ eta ERDARAZ

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak	088/061
Osasun Zentruak	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako ospitalea ..	102100
SSko urgentzi	
zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia	109400
Gurutze Gorria	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea	614600
Gipuzkoako ospitala ..	460299
Erresidentzia	453800
Anbulatorioak	
Irun	630264/621106
Anbulantziak	
Oitz	450242/450342
DYA	
Lesaka	
(larrialdiak).....	(943) 464622
Doneztebe	
(larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Doneztebe	637404
Elizondo	580924
Lesaka.....	637404
Suhiltzaileak	
Oronotz-Mugaire	592255
Garraioak	
Bidasotarra	631150
Baztanesa	580129
Leitzarari	515018
Aberiak:	
Iberduero	450335/450336



Eskualdeko hamaka ikasle sarituak Nafarroako Literatur Lehiaketan

Eskualdeko 11 ikasle sarituak suertatu dira Nafarroako Gobernu Kultura eta Hezkuntza sailak antolatutako Literatur Lehiaketan. BBBko 1. eta 2. mailen zuzendutako lehiaketan Berako Toki-Ona institutuko bost ikasle jaso dituzte sariak: Ipuinetan, Aitziber Iraizozek eskuratu du lehen saria eta Olga Ramosek bigarrena. Narratiba sailan, Ana Iturbidek eta Iban Rodríguezek bigarren sari bana jaso dute eta olerki sailan ere, bigarren saria lortu du Ga-

rikoitz Garciak.

OHoko 7. eta 8. mailetan, Berara eta Goizuetara iritsi dira sariak. Ipuinetan, Berako Ricardo Baroja ikastetxeko Izaskun Seinek lortu du bigarren saria eta Labiaga ikastolako Ainhoa Zestauk hirugarrena. Olerkian, Goizuetako Xalxo eskolako Ainhoa Ansak lortu du bigarren saria eta Eneritz Arozena eta Gorka Irazustak hirugarren sari bana. Ipuinetan, Lesakako Tantarumairu ikastolako Mikel Caballerok aipamen berezia jaso du.

Ortizal honetan, maiatzak 20, burutuko da Iruñean Nafarroako IX. Eskolarteko bertsolari txapelketaren finala. Bertso idatzi eta kantu zaharren lehiaketetaz gain, OHoko ikasleek aurten lehen aldiz ospatuko dute bapateko bertsoen txapelketa, 14 eta 18 urte artekoak bezalaxe.

Argazkia, Lesakan egin dako bapateko kanporaketa saioari dagokio.



Senperen maiatzaren 8an ospatutako Herri Urratsara 80.000 bat lagun joan ziren antolatzaileen arabera. Eskualdeko jende aunitz joan zen noski, argazkiko elizondotar eta leitzarrek bezala. Goizeko euri tantten ondotik egin zuen eguraldi ederrak Iparraldeko ikas-tolen eguna ederki luzitu zuen.

TRAFFIC

muñeca de trapo

GIZONEZKOEN MODA

EMAKUMEZKOEN MODA

BIAK, IRUNGó LUIS MARIANON

Olatz
Relojería
Joyería

GARAI ZAILETARA EGOKITUTAKO PREZIOAK

Bisita gaitzazu eta ikusiko duzu.

Larunbatetan goiz-arratsalde irekia
SAN PEDRO, 3 - Hondarribia

☎ (943) 64 56 78



Aurtengo Nafarroako lehen sokatira txapela Lesakara joan zen


Areson maiatzaren 8an jokaturako 680 kilo azpiko finalean, Beti Gaztekoak suertatu ziren txapeldun

Maiatzaren 8an ospatu zen Areson Nafarroako sokatira txapelketako lehenengo ihardunaldia, 680 kilo azpiko finala hain zuzen.

Final honetan sei talde aritu ziren buruzburu: Areso, Etxauriko Harana, Larraun, Berriozar, Araiz Betelueta Lesakako Beti Gazte.

Kanporaketako sailkapena: Beti Gazte 15 puntu; Araiz Beteluk 12; Aresok 9; Larraunek 5, Berriozarrek 4 eta Etxauriko Haranak 0.

Erdifinaletan Lesakako Beti Gaztekoak Larraunen kontra eta Araiz Betelukoak Aresoren kontra aritu ziren. Lesakarrak arazorik gabe nagusitu zitzaizkien larraundarrei eta gauza bera egin zuten



Lesakarrak tiraldi ikusgarriak burutu zituzten

Arg: Juana Mari SAIZAR

Araiz- Betelukoek Aresokoen kontra.

Hirugarren posturako lehian, beraz, Larraun eta Areso gelditu ziren. Aresok, arratsaldean zehar burututako

saio ederrari ez zion bukaera ona eman eta bitiraldi nahiko kaxkar egin zituen. Honela bada, Areso laugarren eta Larraun hirugarren.

Finalean Beti Gazte

eta Araiz-Betelu aritu ziren. Lesakarrak ez zuten zailtasun haundirik izan bi tiraldiak irabazteko, eta honela, txapela Lesakara lehen aldiz eramateko.

Bote prenton

Leitzako

Aurrera elkarteko futbol talde nagusia Nafarroako Prefereente mailara igotzeko ligillan jokatzen ari da. Hau idazterakoan hirugarren postuan dago hiru partiduren faltan. Beraz, igotzeko aukera badute oraindik.

Sokatira

txapelketak

Asteburu honetan jokatu behar dira, 640 kiloko mutilen eta 520 kiloko nesken txapelketen bigarren kanporaketak. Finalak berri, maiatzaren 28-29an burutuko dira.



PICABEA

• BOUTIQUE •

Udaberri eta udarako moda

Emakume eta gizonezkoarendako

Karrika Nagusia 5 • Tfnoak: 450207 eta 450151

DONEZTEBE

Zati honek **3.000 Pta.** balio ditu

3.000 : 5.700 errebista =

0,52 Pta. errebista bakoitzeko

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



INGELES IKASTAROA UZTAILAN

Bertze urtetan bezala, aurten ere,
ingeles ikastaroa uztailaren 4etik 29ra
goizez 9,15etatik 13,45 orduetara
irakasle "natiboekin".
Apuntatzeko deitu 592006 Tfnora



ERAKUSKETA ZURE ONDOAN

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

erakusketa

Senar-emazteen
logela

erakusketa

Sukaldea-Bainua
Arm. enpotratuak

MOBLEAK
METS

Tfnoak: 630537 • 631443 – BERA

erakusketa

Jargela

ASTELEHENETIK
LARUNBATERA
IREKITZEN DUGU,
GOIZ-ARRATSALDEZ

erakusketa

Gazteendako

AGENDA EGUNEZ EGUN

DEIAK LESAKA

► **Maiatzaren 20tik 22ra** 'Aste bukaera intsumisoo'. Xehetasunak 10. orrialdean.
► **Maiatzaren 26tik 28ra** 'Euskararen Astea'. 26an Jose Mari Carrere ipuin kontalaria. 27an mahai-ingurua: 'Ohizko kirolak eta kirol berriak'. 28an, txiste eta bertso afaria, Juanito Mendizabal txiste kontalaria eta Lesakako bertsolariekin.

KONTZERTUAK GOIZUETA

► **Maiatzaren 28an** frontoian, 'Karkaxa', 'Brankan' eta 'Anima Vili'. Antolatzailea: Gazte Asanblada.

BERTSO AFARIAK GOIZUETA

► **Maiatzaren 28an** Umore Onan, Zeberio, Sorozabal eta Loidisalexe. Antolatzailea: Umore Ona elkarte.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Maiatzaren 16tik 22ra** Etxalar, Doneztebe, Irurita, Urdazubi eta Goizueta..
► **Maiatzaren 23tik 29ra** Lesaka, Sunbilla, Elizondo (F. Lezaun) eta Goizueta.
► **Maiatzaren 30etik ekainaren 5era** Bera, Ituren, Elizondo (J. Iturralde), Leitza eta Goizueta.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Trufak

Osagaiak

• 500 gr. gainalikidua • 600 gr. txokolatea • ron kopa bat • Kakao hautsa

Prestatzeko manera

Ontzi batean irikitten jarri esnegaina. Gero txokolate bel-

tza bota gainetik eta berriro sutan jarri ron koparekin. Guztia batera irikitten jarri berriz, poliki-poliki osagai guztiak urtutzen joan daitezten.

Behin sutatik atera ondoren 24 orduz plater batean utzi hozten. Lehenago egin nahi bada frigorifikoan sar daiteke ore. Hau gogortutakoan eta behar bezala



Juana Mari
SAIZAR
• Areso •

gorputzu denean, kanika gisako borobilak egin eta guztia kakao hautsarekin estali. Jaterako orduan gaina montatuarekin atera mahaira. On egin!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoak): 4.500 pzta.
• **Zerri gizona** (95 - 100): 165 pzta./kilo
• **Zerramak**: 90-105 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak**:
Idixkoak: Pzta./kg. Kanal
Extra 620-630
1.koa 590-600
2.koa 570-580

Urruxak: Pzta./Kg. Kanal

Extra 645
1.koa 620
2.koa 590
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

• **Aretze tikiak**

(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 25.000 eta idixkoak 42.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 42.000 eta idixkoak 55.000 Pzta.

• **Behi zaharrak**:

Behi nabar gizona: 450 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 480-510 Pzta./Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza
• **Bertako sagarrondoak** 930.
• **Udareondoak** 930 pta.
• **Bertako aranondoak** 1.050 pta.
• **Gereziondoak** 1.050 pta.
• **Kiwiondoak** 600 pta. (2 urtek.)
• **Feijoaondoak** 1.000 pta. (2 urt.)



❖ BARAZKIAK ❖

• **Piper txorizero** zientoa 800.
• **Piperminak** zientoa 600.
• **Letxuga** zientoa 400 pta.
• **Azelga** zientoa 400 pta.

LEGARRA

• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

☞ Fax Publikoa
☞ Enkuadernazioak
☞ Inprenta lanak • fotokopiak
☞ **%25eko** deskuentoa diska, kasette eta liburuetan

Legarra 9, ☎ 637030 - LESAKA



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



Adintu eta ezinduentzako dirulaguntzak

Bai adintuek eta baita ezinduek ere, dirulaguntzak eskatzen ahal dituzue horelako kasoetan.

Adintuentzat

1.- Kontributiboak ez diren pentsioak

Ez baduzue inoiz kotizatu eta ingresorik ez baduzue, pentsione hau eskatzen ahal duzue. Kontutan hartu familiako ingresoen arabera ematen direla.

2.- Dirulaguntza bereziak
Antejuak, hortzadurak, audifonoak, ohatze artikulatuak edo antzeko zerbait erosteko, dirulaguntza eskatzeko aukera duzue. Lehen bezala ingresoen arabera neurtzen da.

3.- Etxean bizitzeko laguntza behar izanez gero (janaria prestatu, arropa eta etxea garbitu, ohetik ateri eta sartu...) bi aukera dituzue:

• **Herrietan familia langileak** ditugu etxeetara joan eta lagundu egiten dutenak zuek behar duzen horretan. Egunean gehienez bi ordu egoten ahal dira.

• **Hori baino gehiago behar baduzue** eta kanpoko norbait hartu beharrean bazaude, dirulaguntza eskatzen ahal da pertsona horri ordaintzeko.

4.- Erresidentzia batera joan nahi dutenentzat, guk egiten ahal dugu eskaera gestioa.

5.- Balnearioetara joateko eskaerak ere gure bidez egiten ahal dituzue. Horretarako tratamenduaren beharrean egon behar duzue.

Ezinduentzat

1.- Ezintasun errekonozimendua

Bai ezintasun fisiko, sikiko edota sensoriala duzuenok, agiri hau eskatzen



Informazio gehiago nahi izanez gero, tokian tokiko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetan galdetzen ahal duzue.

ahal duzue. Guttienekoa emanez gero, (%33a), honetarako balio dizue:

- Errenta aitorpenean desgabatzeko.
- Kotxea erosterakoan matrikulazio zerga kentzen dute eta Udalean zirkulazio zerga.
- Kotxea, betaurrekoak... erosteko, beti ere ezintasuna dela eta behartuz gero.
- %65a edo gehiago ematen badute eta ingresorik ezbaduzue, pentsioa eskatzen ahal duzue.

ITZIAR IRIARTE
GIZARTE LANGILEA

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

BERROETA

► **Maiatzaren 20tik 23ra.** Ikus xehetasunak 21. orrialdean.

GAUPASAK

URDAZUBI

► **Maiatzaren 28an** larunbata, gaupasa herriko plazan 'Joselu Anaiak' taldearekin.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Maiatzaren 17tik 27ra** ikastaroetako ikasleen lanak ikusgai Arizkunenea Kultur Etxean, 7etatik 9etara.

► **Maiatzaren 28tik ekainaren 30era**
Angel Urangaren margo erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, 7etatik 9etara.

BERTIZ

► **Uztailaren 3a bitarte** 'Antzinako emakumeak' argazki erakusketa jauregiko behe solairuan. Goizeko 10,30etatik 1,30etara eta arratsaldeko 4etatik 7etara.

MENDI-IBILALDIAK

BERA

► **Maiatzaren 22an** Larun Mendi Taldeak Unanura ibilaldia burutuko du.

► **Maiatzaren 29an** Larun Mendi Taldeak Sokorrira ibilaldia burutuko du.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ✍ Langile Autonomoak
- ✍ Nekazariak eta mendi langileak
- ✍ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ✍ Lan-kontratutarako laguntzak
- ✍ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ✍ Diru-laguntza ezberdinak
- ✍ Kontabilitateak
- ✍ IVA eta IRPF
- ✍ Errenta aitorpenak
- ✍ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ✍ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

ELIZONDO. Santiago 60an pisua salgai. 90 m², hiru logela, jantokia, bi bainugela eta trasteroa. Balkona ere badu. Prezio negoziagarria. ☎ 580453 (lan orduetan).

LESAKA. San Fermine-tako etxeren bat alokatu nahi genuke. Dutxa eta sukaldea naikoa da. ☎ 943 - 554687 (gauze).

ELGORRIAGA. Etxebizitza berri-berria, atiko txiki batekin salgai. ☎ 943-215938 (Begoña).

Borda bat erosiko nuke inguru hontan. ☎ 943-425684 (Rai, asteburuetan).

DONEZTEBE. Pisua salga. Kalefakzioa eta trasteroa. 9 milioi. ☎ 631393. Gauko 8etatik aurrera.

LEGASA. Pisua alkilatze. Kalefakzioa eta trasteroa. ☎ 450357.

Baserria erosiko nuke, bide asfaltatuarekin, es-

kura ordainduz ☎ 451518.

IBILGAILUAK

Kotxeko erremolkea salgai, merke eta egoera onean. ☎ 450883 (4etatik 8etara).

Ford Fiesta XR2, NA-P matrikulakoa, salgai. Hiru hilabeteko garantia. ☎ 637160.

DENETARIK

Musika katea salgai. ☎ 453037 (Juan Mari, 3etatik 4etara).

Sukalde kalefaktorea, egurrerako salgai, labe-rik gabe. Ia berria eta merke, kalefakzioa montatzeko akzesorioekin. ☎ 631193 (gauetan).

Sukalde armarioak, parretan paratzekoak, salgai. Prezio onean. ☎ 592157.

Belarra goitzekoa, ga-

soilezko motorra eta bere tuboarekin salgai, modu onean. ☎ 451597.

Zura zaharrak salgai. Kapirioak eta soliboak. ☎ 604624.

Donezteben labandaria eta tintoreria konjunto osoa saltzen dut, estrenatu gabea. Prezio negoziagarria. ☎ 451518.

Moble zaharrak erosiko nituzke. Berdin da pipiak baldin baditu. Eskura ordaintzen dut. ☎ 451518.

AZIENDAK

Hiru urteko behia eta hilabete terdiko umea salgai. ☎ 610638.

Txakurkumeak salgai. 2 hilabete dituzte eta xertatuak daude. Ama sabueso italiarra eta aita hemengo sabuesoa. ☎ 510204.

Ardi txakurrak salgai. ☎ 604624.

Collie edo Lassie arrazako zakurkumeak, bakunatuak salgai. Ar eta

emeak. Kolore marroi eta txuria. 25.000 pezetatan. ☎ 451518.

LANA

'Manitas' bat eskeintzen da, ekonomikoa eta kuxioa. Barneko pintura lanak, instalazio elektrikoak, elektrogailuen moldaketa ☎ 631283.

Neska batek lan egingen luke pelukeria, denda edo goizez etxeko lanetan. 627587.

Interina bezala etxeko lanak edo bertzeko lanak egiteko prest. ☎ 581127.

Bortziritako Euskaltegiak irakasle bat behar du heldu den ikasturterako. Baldintzak: Bortziritakoa izatea eta EGA-duna. ☎ 637796.

AGURRAK

Lesakako Amaia Aranguren eta Miren Maritxalarreri: zorionak zuen 21. urtebetetzean (maiatzak 3). Musu haundi bana. Kontuz larunbateko afarian mozkortu gabe. Txintxo ibili.

Goizuetako Anabel eta Cristinari zorionak zuen urtebetetzean. Lagunak.

Zorionak Juan Mari Iparagirri Berako Anaren partetik, bere 23. urtebetetzeagatik.

Elizondoko Jabier Biar-tolari, maiatzaren 3an 11 urte betetzeagatik zorionak eta ongi pasa. Urdazubitik Alizia, osaba eta izebaren partez.


Sunbillako Pikori: zorionak zure urtebetetzean eta Rappelek opari asko ematea. Txorromorropikotallokeren partetik.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegia bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegia mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntza akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*

Centro Comercial



**LUIS
MARIANO**
Irun

1993ko ERRENTA AITORPENA

+2

15%


CAJA RURALean

%

ZURI

5x

LAGUNTZEKO GAITUZU



NAFARROAKO CAJA RURALean ERRENTA AITORPENARAKO DOHAINEKO ZERBITZUA

Nafarroako Caja Rural-ean, gure zerbitzu eskusiboa erabil dezakezu
1993ko Errenta eta Ondasunen Aitorpena egiterakoan.

ERRAZAGO

Zure dudak adituen aholku
pertsonalizatuarekin argituko dira eta
Aitorpena eginen dizute

EROSOAGO

Nafarroako Caja Rural-ean zure
Aitorpena tramitatzeaz arduratuko gara
eta kobratzera edo ordaintzera ateratzen
dena zure kontuan helbideratuko dizugu.

AZKARRAGO

Gure ekipo espezializatuak edozein
arazo moldatuko dizu eta zure
Aitorpena modu arin eta eraginkorrean
egitera lagunduko dizugu.
Modu arinenean, Itxaron gabe.

HURBILAGO

Gure 102 bulegoetatik edozein erabiltzen
ahal duzu zure Errenta Aitorpena egiteko.
Zure etxetik oso hurbil.

Zatoz Nafarroako Caja Rural-era. Gure zerbitzuak bistako abantailak ditu.



CAJA RURAL DE NAVARRA



MALDAERREKA, S.A.

Bittiria karrika - 31770 LESAKA - ☎ 63 74 04



PUERTO de la CRUZ

48.900 Ptatik. aitzinera pentsio osoa.

GRAN CANARIA

44.000 Ptatik. aitzinera lojamendua eta gosaria.

GRAN CANARIA eta TENERIFE

76.700 Ptatik. aitzinera pentsio osoa.

LANZAROTE

50.000 Ptatik. aitzinera pentsio erdia.

LANZAROTE eta TENERIFE

70.700 Ptatik. aitzinera pentsio erdia.

HEGO TENERIFE 'Las Dalias' Hotelean

51.800 Ptatik. lojamendua eta gosaria.



BRASIL, 7 gau 3*ko Hotelean 69.800 Pezetatik aitzinera lojamendua eta gosariarekin.**

SRI LANKA, 9 gau 139.900 Pezetatik aitzinera lojamendu eta gosariarekin.

THAILANDIA BANGKOK, 7 gau 89.900 Pezetatik aitzinera



Plaza del Ensanche 8 • **IRUN** • Tfnoa: (943) 61 45 09

ETXANIZ
Lesakako-Iturria anaiak

Juan Arana 1 eta 3
Tfnoa-eta faxa: (943)611767
20302 IRUN

Ez bakarrik saldu, zure bainua berritzeko edo apaintzeko behar duzun guziaz kolokatu ere bai:

- **SANITARIOAK**
- **GRIFERIAK**
- **MUEBLEAK**
- **MANPARAK**
- **PREZIO GUZTAKO OSAGARRIAK**

ESKATU PRESUPUESTOA KONPROMISORIK GABE